



MARIA UBARRECHENA CID MARIA UBARRECHENA CID,
ANDREAK, GOBERNANTZA, CONSEJERA DE
ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA GOBERNANZA,
AUTOGOBERNUKO ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y
SAILBURU, JAURLARITZAREN AUTOGOBIERNO,
IDAZKARI ETA SECRETARIA Y PORTAVOZ
BOZERAMAILEAK DEL GOBIERNO

ZIURTATZEN DUT:

CERTIFICO:

Gobernu Kontseiluak 2025eko
ekainaren 10ean egindako bilkuran,
besteak beste, honako erabaki hau
onartu zuela:

Que el Consejo de Gobierno, en
sesión celebrada el día 10 de junio de
2025, adoptó, entre otros, el siguiente
Acuerdo:

ERABAKIA, EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO SEKTORE
PUBLIKOAREN AURREKONTU
OROKORRETAN GENERO-
IKUSPEGIA TXERTATZEKO
ESTRATEGIA ONARTZEN DUENA.
(ESP. ZBK.: 2025/00554)
(A/20250161)

ACUERDO POR EL QUE SE
APRUEBA LA ESTRATEGIA PARA
INTEGRAR LA PERSPECTIVA DE
GÉNERO EN LOS PRESUPUESTOS
GENERALES DEL SECTOR
PÚBLICO DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA DE EUSKADI. (N.
EXP.: 2025/00554) (A/20250161)

Erabaki-proposamen honen xedea da
Gobernu Kontseiluari aurkeztea, onar
dezan, Euskal Autonomia Erkidegoko
sektore publikoaren aurrekontu orokorretan
genero-ikuspegia txertatzeko Estrategia.

La presente Propuesta de Acuerdo tiene por
objeto someter a la aprobación del Consejo
de Gobierno la Estrategia para integrar la
perspectiva de género en los Presupuestos
Generales del sector público de la Comunidad
Autónoma de Euskadi.

Estrategiak martxoaren 16ko 1/2023
Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako
Emakumeen eta gizonen berdintasunerako
eta emakumeen aurkako indarkeria
matxistarik gabe bizitzeko Legea
(aurrerantzean, Berdintasunerako Legea)
jasotako arau-aginduak garatzen ditu, eta
baita Euskal Autonomia Erkidegoko
Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
2030 Estrategian (2024ko otsailaren 13ko
Gobernu Kontseiluan onartua) eta XIII.
legegintzaldiko 2024-2028 Gobernu

La Estrategia da respuesta a los mandatos
normativos de la Ley para la igualdad de
mujeres y hombres y vidas libres de violencia
machista contra las mujeres, aprobado por el
Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo
(en adelante Ley para la Igualdad), así como
a los mandatos programáticos de la XIII
Legislatura incluidos en la Estrategia 2030
para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la
Comunidad Autónoma de Euskadi (aprobada
en Consejo de Gobierno de 13 de febrero de
2024) y en el Programa de Gobierno de la XIII
Legislatura 2024-2028 (aprobado en Consejo
de Gobierno de 30 de julio de 2024).





Programan (2024ko uztailaren 30eko Gobernu Kontseiluan onartua) jasotako XIII. legegintzaldiko programa-agindua ere Gobernu Kontseiluaren 2025eko apirilaren 15eko Erabakiaren II. eranskineko planen artean dago. Erabaki horren bidez, XIII. legegintzaldirako Gobernuaren plan estrategikoen zerrenda eta horiek egiteko eta izapidetzeko prozedura onartzen dira. Plan horiek, I. eranskinean jasotako plan estrategikoekin batera, gobernu-plangintza osatzen dute.

Azken helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren jardun osoak eragin positiboa izatea emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunen murrizketan, eta, horrela, gizarte bidezkoago eta berdinzaleago bat lortzen laguntzea. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren aurrekontu-programa guztiak, politika publikoen isla direnak, genero-ikuspegiarekin diseinatu behar dira.

Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 388/2024 Dekretuaren 9. eta 12. artikuluen arabera, Koordinazioaren eta Proiektu Estrategikoen Idazkaritza Nagusiari dagokio Jaurlearitzaren proiektu estrategikoen prestaketa koordinatzea sailarteko eta erakundearteko solaskidetzarekin, gobernu-ekintzaren jarraipena egitea eta horiei buruzko informazio- eta jarraipen-prozeduren proposamena egitea.

Berdintasunerako Legearen 9. artikulua Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari esleitzen dio Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzeko, aholkatzeko, planifikatzeko eta ebaluatzeko eskumena, emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzkoak barne.

Bestalde, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 313/2024 Dekretuaren 14. artikulua Finantza Politikako eta Aurrekontuetako Sailburuordetzari esleitzen dio urteko aurrekontuek errespetatu beharko dituzten gidalerro ekonomikoak eta teknikoak egiteko eginkizuna, bai eta Euskal

Se incluye en la relación de planes del Anexo II del Acuerdo del Consejo de Gobierno, de 15 de abril de 2025, por el que se aprueba la relación de planes estratégicos del gobierno para la XIII legislatura y su procedimiento de elaboración y tramitación, que, junto con los planes estratégicos recogidos en su anexo I, conforman la planificación gubernamental.

Su finalidad última es la de asegurar que toda la actuación del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi tenga un impacto positivo en la reducción de las desigualdades existentes entre mujeres y hombres, contribuyendo, de esta manera, a una sociedad más justa e igualitaria. Para ello, todos los programas presupuestarios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, reflejo de sus políticas públicas, han de diseñarse con perspectiva de género.

Conforme a los artículo 9 y 12 del Decreto 388/2024, de 26 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional de Lehendakaritza, corresponde a la Secretaría General de Coordinación y Proyectos Estratégicos la función de coordinar la elaboración de proyectos estratégicos del Gobierno con interlocución interdepartamental e interinstitucional y realizar el seguimiento de la acción de gobierno, así como formular la propuesta de procedimientos de información y seguimiento de los mismos.

El artículo 9 de la Ley para la Igualdad atribuye a Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer la competencia del impulso, asesoramiento, planificación y evaluación de las políticas de igualdad de mujeres y hombres en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi, incluidas las relativas a la violencia machista contra las mujeres.

Por su parte, el artículo 14 del Decreto 313/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Hacienda y Finanzas atribuye a Viceconsejería de Política Financiera y Presupuestos la función de elaboración de las directrices económicas y



Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Aurreproiektua eta horiek onartzeko lege-aurreproiektua egitekoa ere, arlo horretan indarrean dagoen araudiarekin bat etorritz.

Eskumen horiek baliatuz, lehendakariaren eta Ogasun eta Finantzarako sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak honako erabaki hau hartu du:

técnicas que deberán respetar los Presupuestos anuales, así como la elaboración del Anteproyecto de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma y del Anteproyecto de ley de aprobación de los mismos, de conformidad con la normativa vigente en la materia.

En virtud de las citadas competencias, a propuesta del lehendakari y del consejero de Hacienda y Finanzas, el Consejo de Gobierno ha adoptado el siguiente

ERABAKIA:

«**LEHENENGOA.** – Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren aurrekontu orokorretan genero-ikuspegia txertatzeko Estrategia. Estrategia hori eranskin gisa erantsi da.

BIGARRENA. – Estrategia onartzen denetik helburuak bete arte aplikatuko da.

HIRUGARRENA. – Estrategia Lehendakariaren, Emakunderen eta Ogasun eta Finantza Sailaren webguneetan argitaratzea, eta Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren Zuzendaritzara bidaltzea ("Gardena-Transparencia" eta "Irekia-Gobierno Abierto" plataformak kudeatzeko arduraduna baita), bai eta zerbitzu-zuzendaritzetara ere, sailaren antolamenduan zabal dadin, erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, sozietate publikoak, fundazioak eta atxikitako partzuergoak barne».

ERANSKINA

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut, Gasteizen, sinadura digitalaren egunean.

ACUERDO

«**PRIMERO.** – Aprobar la Estrategia para integrar la perspectiva de género en los Presupuestos Generales del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que se adjunta como anexo.

SEGUNDO. - La Estrategia será de aplicación desde su aprobación hasta el cumplimiento de sus objetivos.

TERCERO. - Publicar la Estrategia en la página web de Lehendakaritza, de Emakunde y del Departamento de Hacienda y Finanzas y remitirla a la Dirección de Gobierno Abierto y Buen Gobierno, responsable de gestionar las plataformas "Gardena-Transparencia" e "Irekia-Gobierno Abierto", así como a las Direcciones de Servicios para su difusión en su organización departamental, incluidos sus organismos autónomos, entes públicos de derecho privado, sociedades públicas, fundaciones y consorcios adscritos».

ANEXO

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación en Vitoria-Gasteiz, en la fecha de su firma digital.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTU OROKORRETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO ESTRATEGIA

I. HELBURU OROKORRA

Genero-ikuspegia txertatzea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren aurrekontu orokor guztietan. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak bere jardura guztiak planifikatuko ditu, jarraipena egingo die eta genero-ikuspegiarekin ebaluatuko ditu.

Berekin dakar:

DIAGNOSTIKOA

1. Jardura zehatzak zuzentzen zaizkien kolektiboak sakon ezagutzea. Horretarako, beharrezkoa da sexuaren arabera bereizitako diagnostiko bat izatea, proposatutako helburuak lortzeko interesgarriak izan daitezkeen beste aldagai batzuk ere kontuan hartuko dituen (adina, jatorri etnikoa, dibertsitate funtzionala, sexu-orientazioa, etab.).

PLANGINTZA


2. Diagnostikoan lortutako datuetatik abiatuta, jarduketa-arlo bakoitzak plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan dituen helburuak eta aurrekontuak aztertzea, proposatutako helburuak lortzearekin batera emakumeen eta gizonen berdintasunerantz aurrera egiten dugun egiaztatzeke.

JARRAIPENA

3. Aurrekontu-esleipenen emaitzen jarraipena denboran zehar egitea, bai eta horiek emakumeen eta gizonen aukera sozioekonomikoetan eragiten duten moduarena ere.

EBALUAZIOA ETA PLANIFIKAZIOA

4. Eta, azkenik, emakumeek eta gizonen gure gizartean duten egoerak edo posizioak eragindako diskriminazio-egoerei eusten dieten edo egoera horiek areagotzen dituzten partidak berregituratzea.



II. ARAUEN ETA PROGRAMEN AGINDUETARA EGOKITZEA

Estrategiak Berdintasunerako Legearen arau-aginduei erantzuten die, baita XIII. legegintzaldiko programa-aginduei ere. Zehazki:

1. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua

15. artikulua. – Aurrekontuak.

Euskal administrazio publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren aurrekontu publikoetan, bereziki haiek taxutzeko fasean, emakumeen eta gizonen premia diferenteak kontuan izateko eta berdintasuna sustatzen eta sexuan oinarritutako desberdintasunak desagerrarazten lagun dezaten. Horretarako, jarraibideak ezarri behar dituzte eginkizun hori gauzatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko, bai eta gaikuntza-prozesu egokiak abiarazteko ere.

19. artikulua. – Araudia eta administrazio-jarduera.

Euskal herri-aginteei modu aktiboan hartu behar dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko helburua, honako kasu hauetan: arauak, planak, programak eta politika publikoak, kontratuak, dirulaguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk egin eta aplikatzerakoan.

20. artikulua. – Generoaren arabera eraginaren alde aurreko ebaluazioa eta desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak.

Arau bat egiteko unean, euskal administrazio publikoek, arau hori sustatzen duen administrazio-organismoaren bitartez, ebaluatu egin behar dute proposamen horrek emakumeen eta gizonen egoeran izan dezakeen inpaktua. Horretarako, aztertu behar du arauan proiektatutako jarduerak ondorio positiboak edo negatiboak izan ditzakeen emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazteko eta haien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean.

Egindako genero-inpaktuaren ebaluazioaren arabera, arau-proiektuan neurriak sartu behar dira, emakumeen eta gizonen egoeran izan dezaketen eragin negatiboa neutralizatzeko, antzemandako desberdintasunak murriztu edo desagerrarazteko eta sexuen arteko berdintasuna sustatzeko.

Seigarren xedapen gehigarria

Euskal Autonomia Erkidegoak arian-arian handituko du emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiketara bideratutako aurrekontuaren ehunekoa, 2030erako aurrekontu orokorretan esleitutako guztizko gastuaren % 1,5 izan dadin gutxienez, hargatik eragotzi gabe aurrekontu-helburu hori Berdintasunerako Legearen aurretik gauzatzea.

2. 2030 Estrategia EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako

Gobernu Onaren Neurria 1.13 AURREKONTU OROKORRAK. Handitzea aurrekontu orokorretan Berdintasunerako Legea garatzeko behar diren baliabide ekonomikoak (berdintasunerako organismoak eta egiturak) esleitzen eta zehazten dituzten euskal erakunde publikoen kopurua.

3. 2024-2028 Gobernu Programa

Berdintasunaren arloko konpromiso sektorial ugarietaz eta kolektibo espezifikoekiko konpromisoez gain, 129. konpromisoaren 4. ekimena nabarmentzen da:

Politika publikoen esku-hartze eremuetan genero-zeharkakotasuna txertatzea, eragin politikoko estrategia gisa, egiturari eragingo diona eta gizartea berdintasunean eraldatuko duena.

III. HELBURUA LORTZEKO BEHARREZKO BALDINTZAK

1. Aurrekontu Orokorretan genero-ikuspegia txertatzeko estrategia bat diseinatzeko eta abian jartzeko konpromiso politiko esplizitua, eta, horren ondorioz, baliabideak esleitzea.
2. Lidergo politiko aktiboa Euskal Autonomia Erkidegoko sail, erakunde autonomo, partzuergo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko, sozietate publiko eta sektore publikoko fundazio guztietan.
3. Berdintasunaren arloan adituak diren langileek eta posizio organiko eta harreman funtzional egokiek hornitutako egitura, bai eta bere helburuak betetzeko behar duen aurrekontu-zuzkidura ere.
4. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren politika orokorreko estrategia genero-ikuspegitik aztertzea.
5. Sail bakoitzaren sektore-politikari buruzko hausnarketa orokorra egitea eta genero-ikuspegia sistematikoki txertatzea politika publikoen eta horien jarduera zehatzen diseinuan, inplementazioan eta jarraipenean.
6. Epe ertain eta luzerako plangintza, genero-arrakalak murrizteko benetako emaitzak lortzera bideratutako asmo handiko helburuak zehaztu ahal izateko.
7. Genero-eragina ikuspegi kritiko batetik ikusarazteko konpromisoa, politika publikoetara bideratutako baliabideak berdintasun-helburuetara bideratzea ahalbidetuko duten hobekuntzak lortzeko.
8. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko funtsezko langileen prestakuntza (teknikoa eta politikoa), sektoreko gaien, sareko lanaren eta, komenigarritzat jotzen den guztietan, laguntza teknikoaren araberako berariazko ikastaroen bidez.

IV. ESTRATEGIAREN KOORDINAZIOA ETA JARRAIPENA

1. Estrategiaren Koordinazio eta Jarraipen Batzordea sortu da, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren aurrekontu orokorretan genero-ikuspegia txertatzeko.

2. Batzordeak honako osaera hau du:

- Lehendakaria: Ogasun eta Finantza Saileko Finantza Politikako eta Aurrekontuetako sailburuordea.
- Lehendakariordea: Emakundeko zuzendaria.
- Idazkaritza: Emakundeko Idazkaritza Nagusia.
- Batzordekideak:
 - a) Lehendakariitzako Koordinaziorako eta Proiektu Estrategikoetarako Idazkaritza Nagusiko titularra.
 - b) Lehendakariitzako Koordinazio Estrategikorako zuzendaria.
 - c) Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saileko Zerbitzu zuzendaria.
 - d) Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Saileko Aniztasun, Bizikidetza eta Belaunaldiarteko Elkartasun Zuzendaritzako zuzendaria.
 - e) Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Zerbitzu zuzendaria

4. Eginkizun hauek ditu:

- Proposamenak bateratzeko eta egiteko gune bat izatea, zertarako eta sinergiak sortzeko, Estrategiaren kudeaketa eta emaitzak optimizatzeko.
- Egindako ekintzen eta erabilitako bitarteko eta baliabideen urteko jarraipen-txostena egitea. Lehendakariitzak urteko txostena aurkeztuko dio bere saileko titularrari, hark Gobernu Kontseiluari horren berri eman diezaion.
- Talde teknikoari lana agintzea.
- Kideak Batzordean eta Talde Teknikoan sartzea erabakitzea.

4. Batzordeari laguntzeko, Talde Tekniko bat sortu da, honako osaera honekin:

- Ogasun eta Finantza Saileko berdintasunerako administrazio-unitatea.
- Emakundeko Lankidetza Instituzionaleko Arloko burua.

1. Egoerari buruzko diagnosia egitea.
Kontuak emateko tresnak (P-Gen eta Txostenak) planifikatzeko eta betetzeko garaian dauden zailtasunak ezagutzea eta hobetzeko gomendioak lortzea da helburua.
2. Sentsibilizazio-jardunaldi bat egitea, legegintzaldi bakoitzaren hasieran aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzearen garrantzia emateko.
3. Berdintasun-politikak eta langileen gastuei buruzko I. kapitulua definitzea eta kuantifikatzea, genero-ikuspegia duten aurrekontuen esparruan.
Ezagutza horri esker, erabakiak hartu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan berdintasun-politikek duten aurrekontu-pisua zer eta nola kuantifikatu behar diren erabakitzeko. Horrek guztiak zorrotasun tekniko handiagoa emango dio genero-ikuspegidun aurrekontu-prozesuari berari eta kontuak emateari.
4. Aurrekontu orokorretan genero-ikuspegia txertatzeko dauden tresnak egokitzea (P-Gen, txostenak, EIKA aplikazioa, etab.)
5. Genero-ikuspegia txertatzea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko jardura guztietan, faseka.

- 5.1. Lehenengo fasean, berdintasun-unitate sortuak eta operatiboak dituzten sailek eta erakunde autonomoek, bai eta EITB, Osakidetza, SPRI, URA, IHOBE eta ETS erakundeek ere, genero-ikuspegia txertatzeko aurrekontu-programa, azpiprograma edo jarduketa bat hautatuko dute.

Sail barruko koordinaziorako talde bat sortuko da, hautatutako jarduketaren gaineko eskumenak izango dituen, eta gutxienez honako osaera hau izango duena:

- Kargu publikoak, zerbitzuburuak, kudeaketa ekonomikoaz arduratzen den pertsona eta, aholkularitza-eginkizunean, Berdintasunerako Administrazio Unitatea.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeko kideek Estrategiaren Koordinazio eta Jarraipen Batzordeari jakinaraziko diote talde osaera zein den eta zer jarduketa hautatu diren.

Sail barruko koordinaziorako taldeak eginkizun hauek izango ditu:

- o Erabakiak hartzea hautatutako jardueran genero-ikuspegia txertatzeko, eta jarduketa-plan bat diseinatzea genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala kontuan hartuko dituen diagnostiko batetik abiatuko dena. Horretarako, eskura dagoen informazioa aztertuko du: sexuaren arabera bereizitako estatistika garrantzitsuak, jardunaren xede diren kolektibo nagusiak, dauden genero-arrakalei buruzko informazioa eta hartutako neurri zuzentzaileak.
- o Aurrekontu-programa genero-ikuspegiarekin diseinatutako jarduketari dagokion zatia birformulatzea, berdintasunarekiko konpromisoak aurrekontu-memorian ikusaraziz eta dagokion aurrekontua gastuaren egitura ekonomikoan banakatuta esleituz.
- o Jardunaren jarraipena eta etengabeko ebaluazioa egitea, plangintza-zikloa osatuz.
- o Aurrekontu-programen helburuak betetzeari buruzko memoria egin ondoren, hilabeteko epean jarraipen-txosten bat idaztea, eta Estrategiaren Koordinazio eta Jarraipen Batzordearen esku jartzea.

- 5.2. Urtero, beste aurrekontu-programa, azpiprograma edo jarduera batzuetan sakontzea erabakiko da, guztien % 100era iritsi arte, eta helburuak betetzeko beharrezkotzat jotzen diren sailarteko¹ koordinazio-taldeak sortuko dira.
- 5.3. Sail bakoitzak bere arreta lan-eremu jakin batean jartzeak ez ditu gainerako langileak salbuesten aurrekontu-programak etengabe aztertzen jarraitzetik.
6. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko teknikarientzako eta politikarientzako prestakuntza-plan bat diseinatzea eta abian jartzea, aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko (plangintza, jarraipena eta ebaluazioa).
7. Estrategia abian jarri eta lehen hiru urteetako ebaluazioa egiteko eta etengabeko hobekuntzarako gomendioak emateko kanpoko txostena kontratatzea. Emaizak argitaratzea.
8. Estrategia bat diseinatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide pribatuko gainerako erakunde publikoek, sozietate publikoek eta sektore publikoko fundazioek aurrekontuak genero-ikuspegiarekin egin ditzaten.
9. Genero-ikuspegia duen zerga-politika sustatzea, Euskadiko Zerga Kontratazioko Organoaren esparruan - EZKO.
10. Ogasun eta Finantza Sailean berdintasun-unitate bat sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan aurrekontuak genero-ikuspegiarekin diseinatzeko prozesua finkatzeko dedikazio eskusiboko teknikari batekin (plangintza, jarraipena eta ebaluazioa), Europan eta nazioartean antzeko beste prozesu batzuen jarraipena egiteko eta genero-ikuspegia duten aurrekontuekin lotutako sare eta espazioetan parte hartzeko aukera emango diona.
11. Berdintasunaren lorpenean inplikaturako kolektiboekin aurrekontu parte-hartzaileagoak nola egin hausnartzea: mugimendu feministarekin eta administrazioarekin parte hartzen duten emakume-elkarteekin, besteak beste, ekarpenak egin ditzaten.

VI. ERAGIN EKONOMIKOA

Estrategia onartzeak ez du esan nahi eduki ekonomikoko zuzeneko konpromisorik hartu behar denik. Hala ere, onartzen den ibilbide-orria abian jartzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoek aurrekontu-euskarri egokia izan beharko dute, eta egin nahi den jarduketaren izaeraren arabera dagokion izapideari jarraitu beharko diote.

¹ Berbera edo desberdina izan daiteke.

ESTRATEGIA PARA INTEGRAR LA PERSPECTIVA DE GÉNERO EN LOS PRESUPUESTOS GENERALES DEL SECTOR PÚBLICO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

I. OBJETIVO GENERAL

Integrar la perspectiva de género en la totalidad de los Presupuestos Generales del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Para ello, el sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi planificará todas sus actuaciones, les dará seguimiento y evaluará con perspectiva de género.

Implica:

DIAGNÓSTICO

1. Conocer en profundidad los colectivos a los que se dirigen las actuaciones concretas. Para ello, es necesario contar con un diagnóstico diferenciado por sexo que tenga también en cuenta otras variables que puedan resultar de interés para alcanzar los objetivos propuestos (la edad, el origen étnico, la diversidad funcional, orientación sexual, etc.).

PLANIFICACIÓN

2. A partir de los datos obtenidos en el diagnóstico, analizar los objetivos y los presupuestos con los que cuenta cada área de actuación en todas las fases de planificación, ejecución y evaluación, para comprobar, si paralelamente a la consecución de las metas propuestas, avanzamos hacia la igualdad de mujeres y hombres.

SEGUIMIENTO

3. Hacer el seguimiento en el tiempo de los resultados de las asignaciones presupuestarias y como éstas repercuten en las oportunidades socioeconómicas de las mujeres y de los hombres.

EVALUACIÓN Y PLANIFICACIÓN

4. Y, por último, reestructurar aquellas partidas cuyo impacto mantenga o aumente situaciones discriminatorias existentes, derivadas de la situación o de la posición de las mujeres y de los hombres en nuestra sociedad.



II. ADECUACIÓN A LOS MANDATOS NORMATIVOS Y PROGRAMÁTICOS

La Estrategia da respuesta a los mandatos normativos de la Ley para la Igualdad, así como a los mandatos programáticos de la XIII Legislatura. En concreto:

1. Ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo

Artículo 15. – Presupuestos.

Las administraciones públicas vascas han de integrar la perspectiva de género en sus presupuestos públicos, en particular en su fase de diseño, con el fin de que sean sensibles a las diferentes necesidades de mujeres y hombres y de que contribuyan a promover la igualdad y a eliminar las desigualdades en función del sexo. A tal fin, deben establecer las correspondientes directrices para su realización, seguimiento y evaluación, así como los oportunos procesos de capacitación.

Artículo 19. – Normativa y actividad administrativa.

Los poderes públicos vascos han de tener en cuenta de manera activa el objetivo de la igualdad de mujeres y hombres en la elaboración y aplicación de las normas y de los planes, programas y otros instrumentos de formulación de políticas públicas, así como de los contratos, de los programas subvencionales y de los actos administrativos.

Artículo 20. – Evaluación previa del impacto en función del género y medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad

En el momento de acometer la elaboración de una norma, las administraciones públicas vascas, a través del órgano administrativo que lo promueva, han de evaluar el impacto potencial de la propuesta en la situación de las mujeres y en la de los hombres. Para ello, ha de analizar si la actividad proyectada en la norma puede tener repercusiones positivas o adversas en el objetivo global de eliminar las desigualdades entre mujeres y hombres y promover su igualdad.

En función de la evaluación de impacto realizada, en el proyecto de norma se han de incluir medidas dirigidas a neutralizar su posible impacto negativo en la situación de las mujeres y hombres, así como a reducir o eliminar las desigualdades detectadas y a promover la igualdad de sexos.

Disposición Adicional Sexta

La Comunidad Autónoma del País vasco incrementará progresivamente el porcentaje del presupuesto destinado a las políticas de igualdad de mujeres y hombres, de forma que constituyan, al menos, el 1,5% sobre el gasto total consignado en los presupuestos generales para el año 2030, sin perjuicio de que dicho objetivo presupuestario pueda materializarse con anterioridad de la ley para la Igualdad.

2. Estrategia 2030 para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAE

Medida de Buen Gobierno 1.13 PRESUPUESTOS GENERALES. Incrementar el número de instituciones públicas vascas que consignan y especifican en sus presupuestos generales los recursos económicos necesarios para el desarrollo de la Ley para la igualdad (organismos y estructuras de igualdad).

3. Programa de Gobierno 2024-2028

Además de los múltiples compromisos sectoriales y con colectivos específicos en materia de igualdad, destaca la Iniciativa 4 del Compromiso número 129:

Incorporar la transversalidad de género en los diferentes ámbitos de intervención de las políticas públicas, como estrategia de incidencia política que actúa sobre lo estructural y orienta hacia una transformación social en igualdad.

III. CONDICIONES NECESARIAS PARA LOGRAR EL OBJETIVO

1. Compromiso político explícito de diseño y puesta en marcha de una Estrategia para integrar la perspectiva de género en los Presupuestos Generales con la consecuente asignación de recursos.
2. Liderazgo político activo en todos los departamentos, organismos autónomos, consorcios, entes públicos de derecho privado, sociedades públicas y fundaciones del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
3. Estructura dotada con el personal experto en materia de igualdad suficiente y una posición orgánica y una relación funcional adecuadas, así como una dotación presupuestaria necesaria para el cumplimiento de sus fines.
4. Análisis desde la perspectiva de género de la estrategia de política general del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
5. Reflexión global sobre la política sectorial de cada departamento e integración de la perspectiva de género sistemáticamente en el diseño, implementación y seguimiento de las políticas públicas y sus actuaciones concretas.
6. Planificación a medio y largo plazo que permita definir objetivos ambiciosos orientados a la obtención de resultados reales de disminución de las brechas de género existentes.
7. Compromiso de visibilizar el impacto de género, desde una mirada crítica, para lograr mejoras que permitan reorientar los recursos destinados a las políticas públicas hacia los objetivos de igualdad.
8. Formación del personal clave del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi (técnico y político) a través de cursos específicos según la temática sectorial, del trabajo en red y, siempre que se considere conveniente, de la asistencia técnica.

IV. COORDINACIÓN Y SEGUIMIENTO DE LA ESTRATEGIA

1. Se crea la **Comisión de Coordinación y Seguimiento de la Estrategia** para integrar la perspectiva de género en los Presupuestos Generales del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2. La Comisión tiene siguiente **composición**:

- Presidencia: la persona titular de la Viceconsejería de Política Financiera y Presupuestos del Departamento de Hacienda y Finanzas.
- Vicepresidencia: la Directora o Director de Emakunde.
- Secretaría: la Secretaría General de Emakunde.
- Vocales:
 - a) La persona titular de la Secretaría General de Coordinación y Proyectos Estratégicos de Lehendakaritza.
 - b) La Directora o Director de Coordinación Estratégica de Lehendakaritza.
 - c) La Directora o Director de Servicios del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno.
 - d) La Directora o Director de la Dirección de Diversidad, Convivencia y Solidaridad Intergeneracional del Departamento de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico.
 - e) La Directora o Director de Servicios del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo

3. Tendrá las siguientes **funciones**:

- Ser un espacio de puesta en común y de propuestas al objeto de generar sinergias de forma que se optimice la gestión y los resultados de la Estrategia.
- Elaborar un informe de seguimiento anual de las acciones realizadas y de los medios y recursos utilizados. La Presidencia presentará el informe anual a la persona titular de su departamento para que ésta pueda dar conocimiento al Consejo de Gobierno.
- Encomendar trabajo al Grupo Técnico.
- Acordar la incorporación de miembros, tanto en la Comisión como en el Grupo Técnico.

4. Para dar apoyo a la Comisión, se crea un **Grupo Técnico** con la siguiente composición:

- La unidad administrativa de igualdad del Departamento de Hacienda y Finanzas.
- La jefatura del Área de Cooperación Institucional de Emakunde.

V. HOJA DE RUTA DE LA ESTRATEGIA

1. **Elaborar un diagnóstico de situación.**
El objetivo es conocer las dificultades existentes a la hora de planificar y cumplimentar las herramientas de rendición de cuentas (P-Gen e Informes) y obtener recomendaciones de mejora.
2. **Realizar una Jornada de Sensibilización sobre la importancia de incorporar la perspectiva de género a los presupuestos al inicio de cada legislatura.**
3. **Definir y cuantificar las políticas de igualdad y el capítulo I de gastos de personal, en el marco de los presupuestos con enfoque de género.**
Este conocimiento permitirá adoptar decisiones sobre qué y cómo cuantificar el peso presupuestario de las políticas de igualdad en el sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Todo ello brindará mayor rigor técnico al propio proceso de presupuestación con enfoque de género y a la rendición de cuentas.
4. **Adecuar los instrumentos existentes para integrar la perspectiva de género en los Presupuestos Generales (P-Gen, informes, aplicativo EIKA, etc.)**
5. **Incorporar la perspectiva de género en todas las actuaciones del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, por fases.**

5.1. En una primera fase los departamentos y organismos autónomos con unidades de igualdad creadas y operativas, así como los entes EITB, OSAKIDETZA, SPRI, URA, e IHOBE, seleccionarán un programa presupuestario, subprograma o actuación en la que integrar la perspectiva de género.

Se creará un grupo para la coordinación intradepartamental con competencias sobre la actuación seleccionada y que tendrá al menos, la siguiente composición:

- Cargos públicos, jefaturas de servicio, la persona responsable de la gestión económica y, en su función asesora, la Unidad Administrativa de Igualdad.

Las personas miembros de la Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres pondrán en conocimiento de la Comisión de Coordinación y Seguimiento de la Estrategia la composición de los grupos y de las actuaciones seleccionadas.

El grupo para la coordinación intradepartamental tendrá las siguientes funciones:

- o Tomar decisiones para integrar la perspectiva de género en la actuación elegida y diseñar un plan de actuación que parta de un diagnóstico que tenga en cuenta la perspectiva de género y el enfoque interseccional. Para ello, analizará la información disponible: estadísticas relevantes desagregadas por sexo, colectivos principales a los que se dirige la actuación, información sobre las brechas de género existentes, y medidas correctoras adoptadas.
- o Reformular el programa presupuestario en la parte correspondiente a la actuación diseñada con perspectiva de género, visibilizando en la memoria presupuestaria los compromisos con la igualdad y asignando el correspondiente presupuesto desglosado en la estructura económica de gasto.
- o Hacer el seguimiento y la evaluación continua de la actuación, completando el ciclo de planificación.
- o Elaborada la memoria de cumplimiento de objetivos de los programas presupuestarios, en el plazo de un mes, redactará un informe de seguimiento y lo pondrá a disposición de la Comisión de Coordinación y Seguimiento de la Estrategia.

- 5.2. Cada año se optará por profundizar en otros programas presupuestarios, subprogramas o actuaciones hasta alcanzar el 100% de todos ellos y se crearán los grupos de coordinación intradepartamental¹ que se consideren necesarios para el cumplimiento de los objetivos.
- 5.3. El hecho de que cada Departamento centre su atención en un área de trabajo concreta no exime al resto del personal de seguir avanzando en el análisis de sus programas presupuestarios de manera continua.
6. Diseñar y poner en marcha un plan formativo para el personal técnico y político del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la integración de la perspectiva de género en los presupuestos (planificación, seguimiento y evaluación).
7. Contratar un Informe externo de evaluación de los tres primeros años de la puesta en marcha de la Estrategia y recomendaciones para la mejora continua. Publicación de resultados.
8. Diseñar una estrategia para que el resto de los entes públicos de derecho privado, sociedades públicas y fundaciones del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi elaboren sus presupuestos con perspectiva de género.
9. Promover una política fiscal con perspectiva de género en el marco del Órgano de Contratación Tributaria de Euskadi – OCT.
10. Crear una unidad de igualdad en el Departamento de Hacienda y Finanzas con una persona técnica con dedicación exclusiva a afianzar el proceso de diseño de los presupuestos con perspectiva de género en el sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi (planificación, seguimiento, evaluación), y que le permita hacer seguimiento de otros procesos similares a nivel europeo e internacional y participar en redes y espacios relacionados con los presupuestos con enfoque de género.
11. Reflexionar sobre cómo hacer unos presupuestos más participativos con aquellos colectivos implicados en el logro de la igualdad: con el movimiento feminista, y asociaciones de mujeres que ya participan con la administración para que hagan sus aportaciones, entre otros.

VI. INCIDENCIA ECONÓMICA

La aprobación de la Estrategia no supone la asunción de ningún compromiso de contenido económico directo. No obstante, los recursos económicos que, en su caso, sean necesarios para la puesta en marcha y ejecución de la hoja de ruta que se aprueba, deberán tener un adecuado soporte presupuestario y seguir la tramitación que corresponda en función de la naturaleza de la actuación que se pretenda realizar.

¹ Puede ser el mismo u otro diferente.